



## CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE REGULAN LOS PROCEDIMIENTOS EN MATERIA DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco tiene previsto iniciar la elaboración del Proyecto de Decreto por el que se regulan los procedimientos en materia de evaluación ambiental estratégica.

De conformidad con lo establecido en el apartado 1 del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 12 de diciembre de 2017, se aprobaron Instrucciones sobre la aplicación del procedimiento de elaboración de las disposiciones normativas de carácter general, en las cuales se determinó que la cumplimentación del citado trámite de consulta previa podrá realizarla el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la Disposición de Carácter General mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En cumplimiento de lo anterior, y con carácter previo a su elaboración, por medio de la presente se invita a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de la información contenida en el Anexo que será publicado en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

**El Director de Administración Ambiental**



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1KR5-923D bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador <http://euskadi.eus/localizador>.  
Donostia - San Sebastián, 1 - Telf. 945 01 96 31 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
J0D0Z-T1KR5-923D en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

(Firmado electrónicamente)

**Fdo.: IVÁN PEDREIRA LANCHAS**

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE REGULAN LOS PROCEDIMIENTOS EN MATERIA DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA.**

<p><b>LOS PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA</b></p>	<p>Las normas establecidas para la tramitación de los procedimientos de evaluación ambiental estratégica han sido objeto de varias modificaciones desde su primera regulación mediante la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, correspondiendo la última modificación a la promulgación de la Ley 21/2013, de 11 de diciembre, de evaluación ambiental.</p> <p>Como consecuencia de ello se ha generado una dispersión normativa que dificulta la aplicación de los procedimientos a los distintos supuestos sometidos a evaluación ambiental estratégica debido, fundamentalmente, a las dudas interpretativas que se suscitan.</p>
<p><b>LA NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN</b></p>	<p>Es necesario proceder a la adaptación del marco jurídico de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de evaluación ambiental estratégica a los cambios normativos acaecidos en los últimos años así como desarrollar de forma detallada los distintos aspectos procedimentales establecidos tanto en la normativa básica del Estado como en la normativa propia de esta Comunidad Autónoma.</p>
<p><b>LOS OBJETIVOS DE LA NORMA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Regular los procedimientos en materia de evaluación ambiental estratégica de los planes y programas que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente y se prevean desarrollar en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.</li> <li>• Racionalizar, simplificar y concertar los procedimientos de evaluación ambiental estratégica.</li> <li>• Establecer los mecanismos para garantizar la proporcionalidad entre los efectos sobre el medio ambiente que cabe esperar de la implementación en el futuro de los planes y programas y el tipo de evaluación ambiental, ordinaria o simplificada.</li> <li>• Facilitar a los distintos agentes que intervienen en los procedimientos de evaluación ambiental estratégica la realización de sus funciones atendiendo, especialmente, a la coordinación de los trámites propios de la evaluación ambiental y de los procedimientos sustantivos.</li> </ul>
<p><b>LAS POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS</b></p>	<p>Los textos con rango de Ley en vigor que regulan la evaluación ambiental estratégica tratan múltiples cuestiones en las que existe una variedad de posibles interpretaciones, así como un margen de desarrollo y de detalle amplio.</p> <p>Estas situaciones meritan la redacción de una norma de carácter reglamentario con rango de decreto que aporte claridad y seguridad jurídica a esta tipología de procedimientos reglados, por lo que no se entiende adecuado contemplar otras soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.</p>

**KONTSULTA PUBLIKOA, INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN  
GAINEKO PROZEDURAK ARAUTZEKO DEKRETUAREN PROIEKTUA EGIN  
AURRETIKOA.**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren gaineko prozedurak arautzeko Dekretuaren proiektua egiteko prozedura hastea aurreikusita dauka.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duenez, kontsulta publikoa bideratuko da legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Kontsulta horretan, jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, xedapen arautzaile orokorrak egiteko prozedura ezartzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide horietan zehaztu zenez, xedapen orokorra izapidetzeko zuzendaritza-organo edo -zentro sustatzaileak bete ahalko du aurretiko kontsultarako izapidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taularen bidez.

Aurrekoa betez, eta hura egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratuko den Eranskinean jasotzen den informazioari buruzko iritzia ematera gonbidatzen dira herritarrak idazki honen bidez.

Vitoria-Gasteiz, sinadura-data.

**Ingurumen Administrazioaren zuzendaria**

(sinadura elektronikoa)

**Sin.: IVÁN PEDREIRA LANCHAS**

**KONTSULTA PUBLIKOA, INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN GAINEKO PROZEDURAK ARAUTZEKO DEKRETUAREN PROIEKTUA EGIN AURRETIKOA.**

<p><b>EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b></p>	<p>Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduren izapidea egiteko ezarrita dauden arauak hainbat aldaketa izan dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen bidez lehen aldiz erregulatu zirenetik, eta Ingurumen Ebaluaziorari buruzko abenduaren 11ko 21/2013 Legearekin egin da azken aldaketa.</p> <p>Horren ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mendeko askotariko kasuei prozedurak ezartzea zailtzen duen arau-sakabanaketa gertatu da; funtsean, sortzen diren interpretazio-zalantzenatik.</p>
<p><b>EKIMENA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA</b></p>	<p>Azken urteotako arau-aldaketetara egokitu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren arloko lege-esparrua, eta xehe garatu behar dira estatuko oinarrizko araudian nahiz autonomia-erkidego honen araudian ezarrita dauden prozedurazko askotariko alderdiak.</p>
<p><b>ARAUAREN XEDEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurumenean ondorio handiak izan ditzaketen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean garatzea aurreikusi diren planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren arloko prozedurak erregulatzea.</li> <li>• Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak arrazionalizatzea, sinplifikatzea eta zehaztea.</li> <li>• Etorkizunean planak eta programak ezartzetik ingurumenean espero litezkeen ondorioen eta ingurumen-ebaluazio motaren (ohikoa edo sinplifikatua) arteko proportzionaltasuna bermatzeko mekanismoak ezartzea.</li> <li>• Beren eginkizunak egitea erraztea ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduretan esku hartzen duten agenteei; bereziki, ingurumen-ebaluazioaren beraren izapideen eta prozedura substantiboen koordinazioa hartuta aintzat.</li> </ul>
<p><b>EGON DAITEZKEEN ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK</b></p>	<p>Ingurumen-ebaluazio estrategikoa erregulatzen duten lege-mailako indarreko testuek askotariko kontuak jorratzen dituzte, non askotariko interpretazioak eta garapen- nahiz zehaztasun-marjina zabala dauden.</p> <p>Egoera horiek direla-eta, dekretu-mailako araudi bat idatzi beharko litzateke, arauzko prozedura-tipologia horri argitasuna eta segurtasun juridikoa emateko moduan; hortaz, ez da egoki ikusten bestelako aukera erregulatzailerik aztertzea.</p> <p>Nahitaezko araua sortzeko xedea baino, xede horiek lortzea sustatu beharko litzateke.</p>

